



# ANTZINAKO MUSIKAN SAKONTZEKO IKASTAROA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du urriaren 18 eta 19rako; izena emateko epea zabalik dago » 5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-09-25**

VI. URTEA 1.517. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Haur eskolan dauden bost umetxoak, Egoitz, Adel, Tomas, Izar eta Enaitz, Albizturko jolasteko txokotan. N. URBIZU

## ESKOLA AURREKO LEHENENGO PAUSOAK ETXETIK GERTU

**ALBIZTUR** Ikasturtearen hasierarekin batera herriko bost umetxo haur eskola berrian hasi dira; udaletxearen goiko pisuan dago 4

## Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena

**TOLOSALDEA** Galtzaundi Euskara Taldeak eta Irurako eta Anoetako udalek sinatu dute, enpresetan euskararen normalkuntzarako 3

## Gizarteari epilepsia ezagutzera emateko lanean

**TOLOSA** Gipuzkoako elkarteak egoitza ireki du Tolosan; «gaixo eta ingurukoei laguntzeko» 2

«Presoen senideei diru laguntza kendu izana» salatu du ezker abertzaleak

**IBARRA** Azaldu dutenez, «Udalbatzak uztailaren 29an hartu zuen erabakia» 6

**Karma Quintet taldea izango da entzungai bihar Fronton kafetegian**

**TOLOSA** Doakoa izango da sarrera; jazz taldearen saioa 23:00etan hasiko da 3

**hitza** info

elastikoak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

hitza®

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

hitza®

Gutxiengo baten gaixotasuna bada ere, gure inguruan askok eta askok pairatzen dute epilepsia; beraiei eta ingurukoiei laguntzeko prest dago Gipuzkoako Epilepsia Elkarteak.

# Epilepsia gizarteratzen

## ESTI EZEIZA

**E**pilepsia gaixotasun nerbio-soa da, krisi konbulsiboak agertzea ezaugarri duena. Batzuetan garuneko traumatismo baten ondorio izaten da, prozesu patologiko, tumore eta bestelako kausa baten ondorio, bestetan. Faktore hereditarioen ondorio dela ere pentsatu izan da.

Gaixotasun hau gutxienez espero denean etorri, eta burutazio bat lapurtzen du, edo amets zati bat, hitz bat... Lapurra da epilepsia, baina ikasi behar da harekin bizitzen, gaixotasun kronikoa baita, garunari eragiten diona.

Arraroa dirudien arren, gaitz hau ez da ezo hikoia. Gipuzkoako biztanleen %1ak edo %1,5ak pairatzen du era batean edo bestean, era askotara ager baitaiteke. Diagnostikoa garaiz egitea oso garrantzitsua da, gaixotasunarekin bizitzen berehala ikasteko.

## Gaixoei eta ingurukoiei laguntzeko prest

Epilepsiaren arazoari aurre egiteko asmoz, 2004ko urrian sortu zen Gipuzkoako Epilepsia Elkarteak.

Hau, Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, irabazi asmorik gabekoa, eta gaitz honen menpe daudenez, senideez eta beste laguntzaile batzuez osatuta, hainbat helburu lortu nahian dihardute.

Elkarte honen xedeetako bat da gaitz honen menpe dauden senideak eta interesa duten pertsonak elkartzea. Honez gain, gaixo eta senideei laguntza psikologiko, soziala eta morala eskaintzen du. Bestalde, gai legal eta laboraletan aholkuak ematen dituzte, eta administrazio publikoen aurrean beraien eskubideak defendatzen dituzte. Azkenik, epilepsiaren gaia gizartean ezagutzera emateko lan egiten dute, eta laguntzaile kopurua handitzen ahalegintzen dira.

Elkarteak laguntzeko era ezberdinak ditu, eta horietako bat da, gaitz hau jasaten dutenekin, egonaldiak eta ekintzak antolatzea. Horietan epilepsiaz hitz egiten dute, sikologo eta neurologoen laguntzarekin.

Edonork lagundu dezake elkar-teari, honetarako, antolatzen dituzten bileretara joan daiteke. Laguntzeko beste modu bat da, epi-



Alfonso Lopez de Etxeberria zuzendu zuen Tolosako aurkezpena. E. EZEIZA

lepsia gaitzarekin interesatzea eta bazkide egitea. Azken honetarako, elkartearen bulegoan fitxa bat bete behar da edota telefonoz deitu.

Egun, 35 lagunek osatzen dute

elkartea. Hala, hau ezagutzera emateko asmoz, joan den astean aurkeztu zuten elkarte Tolosan, eta hainbat lagun bildu ziren ekitaldian.

## «Epilepsia pairatzen duten askori kosta egiten zaie gaixotasun hau dutela onartzea»

**ALFONSO LOPEZ DE ETXEBERRIA** > Gipuzkoako Epilepsia Elkarteak Lehendakaria

**Gizartea** >> Joan den astean aurkeztu zuten Tolosan Gipuzkoako Epilepsia Elkarteak, egiten duten lana agertuz.

## E. EZEIZA

Duela bi urte sortu zen Gipuzkoako Epilepsia Elkarteak. Bertako lehendakari da Alfonso Lopez de Etxeberria (Donostia, 1951). Hau eta Donostia Ospitaleko neurologoa den Juan Espinal bertan izan ziren, azalpenak ematen.

**Joan den astean aurkeztu zuten, Tolosan, elkarteak. Nolatan orain?**

Elkarteak orain gutxi sortua da, eta egoitza Donostian du. Baina izenak berak dioten bezala, Gipuzkoa mailakoa da, horregatik, inguruko hiri eta herrietara ere elkarteak ezagutzera eman nahian gabilta.

**Zein da elkarteak egiten duen lana?**

Oraindik hasiberriak gara eta gainera, epilepsia pairatzen duten askori kosta egiten zaie gaixotasun hau dutela onartzea. Horren adierazle, Tolosako aurkezpenaren jende gutxi joan zen. Badakit han zeudez gain, gaixo gehiago ere badaudela Tolosaldean, baina ez ziren agertu. Bestalde, gaitza ezagutzera emateko asmoz, hainbat ekintza gauzatzen ditugu. Proiektu asko dauzkagu, baina askotan ezin ditugu aurrera eraman, behar bezain besteko erantzuna ez dugulako jasotzen. Lan handia dago egiteko, eta denbora behar da.

**Zeintzuk dira gaixotasun honen ezaugarriak?**

Ezagunena, orokorra da. Dokumentalari ikusi daiteke, gaixoak gorputz-dardarak izaten ditu eta kolpeak ematen ditu lurtean... Baina, epilepsia mota asko daude. Ba-

tzuetan segundo gutxiko hutsuneak izaten dituzte. Ez dira mugitu ere egiten, eta horiek ere epilepsia zantzuak dira. Ez dago eredu zehatzik.

**Zertan mugatzen du pertsona baten bizitza?**

Gauza askotan. Esaterako, 16-30 urte bitartean pairatzen duenean pertsona batek bere lehendabiziko krisia, oso zaila egiten zaio onartzea. Ez da erraza esatea gazte bati, ezin duela gauetan atera, alkohola edan, erre... Aldiz, haurra denean oharitzen bada gaixotasun hori duela, denbora dauka onartzeko. Lan munduari dagokionean, gauzak askoz ere zailago daukazu. Ezin duzu gorde, eta esaten baduzu, agian ez zaituzte hartuko. Egunero entzuten ditut gisa horretako arazoak.

**Zerbaitek eragiten al du gaixotasun hori?**

Neurologo batzuek diote, agian

kolpe batetik etor daitekeela. Baita, temperatura altuengatik ere. Baina behin epilepsia krisi bat jasateak ez du esan nahi epileptikoa zarenik. Epileptikoa zarena diagnostikatzeko, behin baino gehiagotan pairatu behar duzu. Gaitz hau, neurologian ematen den kontrol ezatik dator.

**Egun, kontrola daiteke, baina ezin da sendatu ez?**

Medikazioarekin %70-80a kontrola daiteke. Baina kronikoa da. Bestalde, baldintzen arabera, ebakuntza ere egin daiteke.

**Zein gomendio ematen dizkiezu gaixoen ingurukoiei?**

Familiaren babesa ezinbestekoa da. Nik ez dut nahi jendeak «epilepsia daukat» jartzen duen kartel bat eramatea, baina gaia ateratzen denetan, lasai honetaz hitz egitea nahi dut. Dena den, ulertzen dut ez esan nahi izatea. Nire gomendioa da beti ematea babesa, eta onartzen laguntzeko.

## Lasterketetara eta kirolera gerturatzeko ikastaroak emakumeentzat

### ERREDAKZIOA

*Zeuk probaezazu* lelopean, Udalak adin guztietako emakumeentzat entrenamenduak eskainiko ditu Usabal kiroldegian. Batez ere, hasiberrientzat izango dira. Hauek, astean bitan izango dira, ordu eta erdiko iraupena izango duelarik saio bakoitzak.

Ekimen honen helburua hainbat lasterketetarako prestatzea egitea da, urrian hasi eta ekaina bitartean, (lilatoia, 10 kilometroetako karrerak... Behobia-Donostia lasterketak prestatuz...). Baina xede nagusia emakume kirolera (lasterketetara) erakartzea izango da. Honetarako, begiraleek zuzendutako prestateta egokiasokoko dute, eta talde giroa nagusituko da. Interesatuak, Usabal kiroldegian izena eman dezakete gaurtik aurrera. Taldea osatu bezain laister, martxan jarriko da. Izen-ematea doakoa da. Hala aukera bikaina dute tolosarrek, kirola eta korrikarako zaletasuna esnatu edota indartzeko.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alikiza-Herialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Isarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu dute

**Euskara** » Anoetako eta Irurako udalek eta Galtzaundik sinatu dute, «sektore horretan behar handia dagoelako».

INIGO TERRADILLOS

Irurako eta Anoetako Udalek eta Galtzaundi Euskara Taldeak hitzarmena sinatu dute, bi udalerririk horietako enpresetan euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Horretarako, Euskara Taldeak konpromisoa hartu du bere baliabideak erabiltzeko euskararen normalkuntza bultzatzeko alor horretan, eta bi udalek helburu hori betetzen lagunduko diote elkarteari diruz lagunduz, 1.500 euroekin, hain zuzen ere.

Anoetako Udalaren kasuan, bigarren urtea da aurten Galtzaundirekin hitzarmena sinatzen duena. Periko Peñagarikano Anoetako alkateak atzoko ekitaldian esan bezala, «iaz hasitako lanari jarraipena eman nahi diogu, oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu enpresa munduan ere euskararen normalizazioa sustatzea». Hala, ahalik eta enpresa gehienek euskararen erabilera areagotuko duten konpromisoak hartzea dela euren



Jon Ander Ubeda, Marimi Ugalde eta Periko Peñagarikano, atzoko ekitaldian. I. T.

nahia azaldu zuen, eta Anoetako Udalak «ahalegin guztiak» egingo dituela enpresa hauei laguntzeko, beraiekiko harremanak euskara hutsean bideratzeko.

Irurako Udalak, bestalde, lehen aldiz jarriko du martxan enpresa munduan euskara normalizatzeko ekimen bat. «Garbi dago bi herriek apustu berbera egin nahi dugula, gure herrietan enpresa munduak pisu handia duelako», azaldu zuen Marimi Ugaldek Irurako al-

kateak. Halaber, enpresa sektorea «oso sektore erdalduna» dela gaineratu zuen, eta «gureak hain herri euskaldunak izanik, kontrako bidean goazela dirudi, guk norabide berbera izatea nahiko genuke, euskararen normalizazioaren bidea, eta horretan saiatuko gara».

## Hutsunea betetzeko

Jon Ander Ubeda Galtzaundi Euskara Taldeko zuzendaritzaren ki-deak Galtzaundik erronka horri

heldu nahi diola adierazi zuen. «Urteak daramatzagu euskararen normalizazioa eremu desberdinetan lantzen, baina enpresa munduan benetako apustua egin behar dela uste dugu». Horretarako, Galtzaundiko teknikari batek enpresak bisitatzeko dituela azaldu zuen; «elkarrekin bere prestutasun osoa izango du, hauei jarraipena eman, itzulpen zerbitzua eskaini eta aholkularitza lana hartzeko». Ubedak harrera ona izatea eta eki-

menak jarraipena izatea espero duela adierazi zuen.

Sinatu duten hitzarmenaren arabera, Udal bakoitzak jarduerak eta normalizazio lanak lagunduko ditu diruz, 1.500 euroko kopururekin, hain zuzen ere. Halaber, Euskara Taldeari behar duen babes eta laguntza tekniko guztia emateko konpromisoa ere hartu dute. Galtzaundik, bere aldetik, bi herrietako enpresa munduko eragileei bisitak egingo dizkie; hau udalen artean zehaztuko dute, eta Anoetaren kasuan, iaz bisitatu ez zituzten artean zehaztuko dute.

## Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko laguntza

Hala, bisitatzeko dituzten eragile guztiei aukerak eskainiko dizkie Galtzaundik, beraien enpresetako euskararen erabilera sustatzeko duten konpromisoak edo planak bideratzeko eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortzen lagunduko die, baita ere. Halaber, konpromisoak aurrera eramateko laguntza eskainiko die, eta Galtzaundik duen itzulpen zerbitzua ere jarriko dute euren eskura. Bestalde, eragile horien diagnostikoa egingo du, oinarriko datu-bilketa baten bidez. Anoetaren kasuan, iaz konpromisoak bideratzeko prest agertu ziren enpresei jarraipena egingo die Euskara Taldeak.

Azkenik, enpresa guztiak udalarekiko harreman hizkuntza finkatuko dute, «jakinik bi udalek euskara hutseko harremana izan nahiko luketela beraiek».

# Karma Quintet taldea, bihar Fronton kafetegian

**Musika** » 23:00etatik aurrera izango da jazz taldearen zuzeneko kontzertua; sarrera doan izango da.



Karma Quintet taldea bihar izango da ikusgai Frontonen. HITZA

ERREDAKZIOA

Karma Quintet taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da bihar, 23:00etatik aurrera Tolosako Fronton kafetegian, Kutxaren Gizarte Ekintzak lagunduta. Sarrera doan izango da.

Karma Quintet jazz bokaleko taldea da, eta bertan, pop musikaren eta brasildar sustraia dituen musikaren eraginak elkartzeko dira. Nabarmenak dira intimismoaren ekarpenak, baita bere energia musikala ere, eta era horretan, *crooner* kontzeptua modernizatzen du, uneoro horrekin leial jokatuz.

Enrique Galan (ahotsa) eta Eusebio Soriaren (baxua) arteko lan-kidetza artistikotik abiatuta sortu zen taldea. Lanean hainbat urte egin ondoren, 2007. urtean, Bea Hurtado (pianoa, teklatura), Igor Intxausti (gitarra) eta Isak Oiar-

tzabal (bateria, perkusioa) elkartu zitzaizkien. Jazzaren errepertorioaren barruan ezagunak diren lanak jotzen dituzte gaur egun, baita beren kantak ere, taldeak une jakin bakoitzean izan dituen kezka musikalen ondorio direnak.

Karma Quinteten musika kontzeptua ulertzeko, *crooner* izenez ezagutzen den kontzeptuak gizonen ahotsez kantatutako jazzari egindako ekarpena ulertu be-

harra dago. Estilo honen barruan, Mel Torme, John Pizzarelli, Johnny Hartman, Nat King Cole, Louis Prima eta abarren tamainako kantariak bil daitezke, guztiak ere ahots bero eta dotoreak, jazzean halako begirunea izan duten emakumezkoen ahotsei emandako erantzuna izan direlarik.

Karma Quintet taldea, 2007. urteko Donostiako Jazzaldian parte hartu ondoren, bere proiektua


## » EGITARAUA

- *The very thought of you* (Ray Noble).
- *Old Devil Moon* (Lane-Harburg).
- *Bye bye Blackbird* (Henderson-Dixon).
- *Acariciar* (Enrique Galan).
- *Here comes the sun* (Lennon-Mc Cartney).
- *Fly me to the moon* (Bart Howard).
- *Song For My Father* (Horace Silver).

- *Sophisticated Lady* (Ellington-Mills-Parish).
- *All the things you are* (Jerome-Oscar).
- *Soy un desastre* (Enrique Galan).
- *Dorian Gray* (Enrique Galan).
- *Take the "A" train* (Billy Strayhorn-Lee Gaines).
- *Just friends* (Klemmer-Lewis).
- *Black Orpheus* (Louis Bonfa).

sendotu nahian, musika beltzeko eragin musikaletara zabaldu da, hala nola, Blues edo Funky estilotara. Hala, *Here comes the sun* (Lennon-McCartny), *Song For My*

*Father* (Horace Silver), edo *Dorian Gray* bezalako Enrique Galanen lanak, Karma Quintet taldearen erakusgarri kontsidera ditza-kegu.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Iazko sagardo dastaketa. A. OTEZABAL

## Kultur Astearen baitan egingo den azokan, erakusketa eta hamaiaketakoa

**Bidegoian** » Sardina jatea, sagardo eta txakolin dastaketaz gain, baserrietako barne tresnak ere izango dira.

### ERREDAKZIOA

Datorren igandean Bidegoiango Kultur Astea bukatu egingo da, baina bukaera dotorea emango diote aurtengoari ere, azoka berezi batekin. Goiazko plazan zentratuko da jai egun hau, goiz guztian zehar. Erakusketa, azoka eta hamaiaketakoa izango dira bertan.

Erakusketari dagokionez, egur-taila, maketagitza, pilotak, larrua eta abar izango dira. Azokan berri, kalitatezko produktuak ikusteko eta erosteko aukera izango da. Bitartean, sagardoa eta txakolina dastatu ahal izango dira, sardina-jatearekin batera.

Aurten, aipamen berezia merezi dute azokako beste honako hauek: herriko baserriko antzinako barne tresnen erakusketa, hain zuzen.

### Bihar patata-tortilla lehiaketa

Biharko, 19:00etan patata-tortilla lehiaketa antolatuko dute Bidaniko frontoian, eta ordua arte izena eman dutenek hartuko dute parte. Bitartean herriko trikitilariak ariko dira. 21:00etan *Ogirik gabe etorri zen semea* antzerkia izango da, balioanitzeko gelan.

Ikasturte berriarekin batera, Albizturek haur eskola berria du, udaletxearen goiko pisuan; bost haur hasi dira bi hezitzaileekin, bi aste egokitzapen egunak «oso ondo» joan ondoren.

## Txiki-txikitatik hazteko bidean

### NEREA URBIZU

**A**lbizturko haur eskola berriari sartu eta hantxe zeuden Adei, Enaitz, Egoitz, Izar eta Tomas, lasai-lasai, ingurua gehiago ezagutzen, eta txokoetaz gozatzen hasten. Bi asteetan zehar egokitzapena izan dute gurasoekin, eta aste honetan hasi dira haur eskolan bi hezitzaileekin gelditzen. Hezitzaileek esan bezala, «orokorrean oso ondo joan da egokitzapena». Bost lagun hauekin jolasteko eta ikasteko oraindik epeazabalik dago, hilaren 30ra arte, hain zuzen.

Haur eskolako ume guztiak albizturtarrak dira, eta abenduan lagun berri bat izango dute, azpeitiar bat. Oraindik taldeko inork ez du urtea bete, baina ibiltzen laster hasiko dirabatzuk; asmo hori ikusten da behintzat. Txikiena urtarrilean jaio zen, eta zaharrenak datorren hilabetean beteko du urtetxo bat.

### Eguneroko zereginak

09:30a alderajotzen diragehiarik, baina 07:30ean ere iritsi daitezke nahi edo behar izanez gero (09:30a baino lehen datozenek ordura arte lo egiten dute sehaskatxoetan). Albizturko kasuan, 16:30a arte egoten da berantiarrena, baina 18:30a arte ere egon daitezke.

09:30a inguruan jolas librearen izan dute: marrazkiak, jostailuak erabiltzen dituzte, edo besterik gabe, lekua behatzen ibiltzen dira. 11:45ean bazkaltzeko garaia da, eta bakoitzak etxetik ekarritako janaria jaten dute mahaian. Gero, pardedalaldatzeko garaia da. Bazkaldu ondoren, siesta ordua ere izaten dute eta esnatu ondoren, berriz ere jolastu egiten dute.

Hauek guztiak egiteko haur eskola txoko ezberdinetan dago banatuta, bakoitzak bere funtzioa betetzeko: psikomotritzitate txokoa, jolas

txokoa, liburutegia (oraindik materiala erosten ari dira) eta eskulan txokoa (bazkaltzeko mahai berdina da). Horrez gain, logela, kumuna eta sukalde bat ere badaude. Noski, musika ez da falta haur eskolan.

### Bi hezitzaile egunero

Udaletxeko azken solairuan dago haur eskola berria: obrak ekainaldera hasi zituzten, eta dagoeneko martxan da. Bost haur joaten dira egunero-egunero eta haiekin Maddi Okariz (hezitzailea eta orain koordinatzailea) eta Josune Sanchez (hezitzailea) egoten dira. Bertara igotzeko eskilarez gain, igogailua ere badago.

Maddi Okariz orain arte beste haur eskola batzuetan egon da, eta ez dira Albizturkoen tainainakoa izan. «Ez naiz inoiz bost haurrekin egon, beti talde handiagoak izan ditut. Honek bere alde ona dauka, giroa familiakoagoa da, hurbilagoa eta haurrei goxotasun gehiago eman diezaikegu». Umetxoak, beraz, esku onetan.



Eskulan txokoa eta bazkaltzeko mahai berdina. N. URBIZU



Logelan hiru sehaska daude oraingo, baina gutxinaka egokitzen ari dira. N. U.



Egoitz, Adei, Tomas, Izar eta Enaitz, jolasteko txokoa. N. URBIZU



# Sartu euskararen Xarean,

Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.



Irurako Udala







Wilma Ten Wolde zuzendari holandarra Udazkeneko Ikastaroetako eskolak ematen. INIGO TERRADILLOS

## Antzinako musikari buruzko interpretazio ikastaroa antolatu dute urrirako

**Tolosa** » Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du, eta horretaz gain, San Frantzisko elizan topaketa bat izango da.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antzinako musikari buruzko interpretazio tailer-ikastaro bat antolatu du Tolosan. Datorren urriaren 18 eta 19an izango da, Leonardo Garcia Alarcon zuzendariaren eskutik. Ikastaro hau urtero antolatu ohi dena da, eta bertara etorritako ikasleek beren inkestangai honen inguruan adierazita konahia betetzera dator. Ikastaro honetan izena emateko epea zabalik dago, eta honako bideak erabil daitezke: 943 53 69 73 (goizez deitu behar da, 08:00etatik 14:00etara) edo bestela, [koralakgaf@euskalnet.net](mailto:koralakgaf@euskalnet.net) helbidea.

Bada, jada, hainbat urte Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak

ikastaro hau antolatzen duela Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren inguruan, ospe handikoa izanik. Horrela, beste probintziatari etorritako ikasleak izaten dira sarri bertan.

Eduardo Mocoera Udal Musika Eskolan izango da eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara bitartean izango da. Urriaren 19an, igandean beraz, 10:00etatik 14:00etara izango da, goizez bakarrik.

**Topaketa San Frantzisko elizan** Bestalde, federatutako abesbatzen artean baterako ekintzak sustatzearen, GAFek, Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean Tolosako Abesbatzen Lehiaketa aurretik egin ohi den kontzertua antolatu du, hau da, topaketa. Ekitaldian, Gipuzkoako hiru abesbatza bitartean dira, eta bakoitzak bere egitaraua eskaintzeaz gain, guztiak elkarrekin abesti batzuk kantatzen dituzte.

Elkarren arteko kanta horiek

zuzentzeko, urtero zuzendari bat gonbidatzen dute, eta oraingo edizio honetan Jose Manuel Tife izan da aukeratua.

Aurten parte hartuko duten abesbatzak hauek izango dira: Hondarribiko Eskifaia Abesbatza, Donostiako Mariaren Bihotza Abesbatza eta Arrasateko Goikobalu Abesbatza.

Topaketa hau Tolosako San Frantzisko elizan burutuko da, urriaren 25ean, larunbata, 20:00etan.

### Azurza zuzendaria Koruen I. tailerlean

Gazte koruen I. tailerra ere antolatu dute, asteburu honetarako. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du Hondarribian Foru Aldundiak duen aterpetxean. Parte hartu nahi duen Gipuzkoan federatutako abesbatza guztiak gazteekin burutuko den musika korala lantzeko asteburu pasa proposatu zaie. Bertan, David Azurza zuzendaria ere ariko da.

Adituak zure nahiak betetzen

### KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA

Epea	Interes nominala	
1 urte:	%4,42	
3 urte:	%5,63	
5 urte:	%5,89	
7 urte:	%6,00	

**%6,50 U.T.B.**

Irteera-konpos: Komisia aldi aurretik amortizatzen da: %1  
Komisia aldi aurretik kitzatzen da: %6  
Guztizko zehazkia: 9.000€

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutzaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

08-09-22tik aurrera egindako eragiketarako eskaintza, 10 milioi euroa itxi arte. Berrio finantzatzeko eragiketarik alde batera utzita.



## Laburrak

### Aldabako San Migel jaiak asteburuan izango dira

**ALDABA** » Etzi Aldaba aukozko festak hasiko dira 18:00etan, txupinazoa arekin. Ondoren, 19:30ean patata tortilla lehiaketa izango da: jangaiki egongo dira prestatuta baina tresneria (sua, zartagia...) norberak eraman beharko du. Zahagi ardoa ere prestatu dute eta Hernaniko bertsolariak ere izango dira. Gauean erromeria izango da. Festak aurten astelehena arte izango dira, San Migel jaiak, hain juxtu.

### Lur Korta ipuin kontalaria Urkizun eta Aldaban

**KULTURA** » Gaur arratsaldean eta Galtzaundi Euskara taldeak antolatuta, Urkizu auzoan Lur Korta ipuin kontalaria izango da 17:30etik aurrera. Haurrentzako proposa den ipuin kontalaria hau ikusi eta entzun nahi duen oro Apaiz Etxean azaldu beharko da, Urkizun bertan. Astelehenean, beraz, Aldaban izango da 18:00etan, Apaiz Etxean ere (ekitaldi hau Aldabako festen baitan izango da aldi berean).

### Eneko Lasa arrantzalearen omenaldia etzi, 20:30ean

**ALEGIA** » Etzi, Alegia Eneko Lasa arrantzale gaztetxoaren omenaldia dute. Udalak egindako dion omenaldi hau 20:30ean izango da, plaza inguruan. Ez da dena omenaldia-rekin bukatuko, izan ere, ondoren zahagi ardoa izango da bertan. Eneko Lasak joan den abuztuan Munduko Txapelketajokatu zuen Portugalen eta azpitxapelduna geratu zen junior mailan. Datorren Munduko Txapelketarako ere sailkatu egin da.



Goar Jimenezek argitu zuenez, «uztailaren 29an erabaki zuen Udalak preso senideen diru laguntzak etetea». R.CALVO

## Presoen senideen laguntza kendu izana salatu dute

**Ibarra** » Herriko ezker abertzaleak «uztailaren 29an diru laguntzak kentzeko hartu erabakia gaitzetsi» dute.

REBEKA CALVO

Ibarrako ezker abertzaleak argitu du: Udaletxean aritzen direnak «gezurtiak eta kartzeleroak» dira. Goar Jimenezek argitu zuenaren arabera, «ohitu gara jadanik Udaletxe honetako jokatzeko modu zabarretara, eta oraingoan ere gai sensible batekin: presoak eta erren senideak».

Jimenezek Udalak pasa den uztailaren 29an egin Udalbatzan herriko preso senideei bideratutako diru laguntzak kentzeko hartutako erabakia salatu zuen. «Uztailak 29an, goizean, isil-isilik eta ezkutuan egindako Udalbatzan diru laguntzak atzera bota zituzten. Eta biharamunean, preso senideekin bildu zirenean, aurpegira esateko koldarregiak bultzatuta nonbait, lotsagabeki gezurra esan zieten». Izan ere, Jimenezek azaldu duenaren arabera,

Udalbiltza horren hurrengo egunean Udalak bilera egin zuen Ezker Abertzaleko hautesi talde bat eta preso senide batzuekin, «azken hauek jasotzen zituzten diru laguntzetan ustez omen zeuden irregulartasunez aritzeko». Bilera hartan, gainera, bestelako kezka ere helarazi zieten Udaleko arduradunari; «hilabete batzuk lehenago ongizateko batzordean PSOEk preso diru laguntzak murriztea proposatu zuela eta gertatuko zeneren kezka», hain zuzen ere.

Baina, salatu dutenez, «Udalak diru laguntzak kentzeko erabakia hartuta zuen ordurako», nahiz eta senide eta hautetsiei «lasai egoteko» esan. Hauguztia dela eta Udaletxean «gezurtiak» direla azaldu zuen gazteak.

Erabaki honen haritik Jimenezek «kartzeleroak» ere badirela esan zuen. «Dispersio politikak kriminalari babes zuzena ematen diote bere ondorioak pairatzen dituenari zituena laguntza apurrak ukatuz. Beste behin ere PSOEn erimen egin eta eskuz esku doaz ibilbide errepresibo horretan», azaldu zuen zentzu honetan.

Ibarrako Ezker Abertzaleak, era

berean, Ibarrakoa «kasu isolatua» ez dela azpimarratu zuen. «EAJ-EAK hauu estrategikoa egina dute jada, estatuarekin konfrontazio faltsu bat irudikatu baina praktikan morroi zintzoak eta otzanak izan estatuarekin beraien neurri-rako erreforma bat negoziatzeko, hots, beraien klase interesak eta pribilegio politikoak mantentzeko herriaren sufrikario, odol eta izerdiaren gainean», gaineratu zuen Jimenezek.

### «Beste kasu baten salaketa»

Bestalde, ezker abertzaleak «herriaren eman den beste errepresio kasu» baten berri emateko ere baliatu zuen atzoko agerpena. «Ibarrako gazte bat Audientzi Nazionalera deitu dute eta bere delitu bakarra txosna bateko arduradunazatea» dela argitu zuten.

Hau guztia dela eta, Goar Jimenezek bihar, ostiralera, 19:30ean Ibarrako sarreratik egingo den giza katean parte hartzeko gonbita luzatu zien herritarrei, eta baita datorren ostegunean, urriaren 2an, herriko Subegi elkartearen burutuko den batzarrean parte hartzeko deia ere.

## Bihar amaituko da helduen ikastaroetan izena emateko epea

**Asteasu** » Haurrentzako zein helduentzako ikastaro ugari antolatu dituzte; dantza tropikala, antzerkia eta alboka, besteak beste.

Haurrei dagokionez, 3, 4 eta 5 urtekoek ludoteka izango dute doan astelehen, asteazken eta ostirlaretan. Antzerkia ere izango dutelau eta bost urtekoek asteartean (50 euro).

Lehen Hezkuntzako eta zaharrragoak diren haurrek ere ikastaro deberdinak izango dituzte aukeran; antzerkia asteartean (50 euro), marrazketa (50 euro), bertso eskola ostegunean (50 euro) eta dantza ostiralean (50 euro). Musika ere izango dute aukeran eta ikastaro bakoitzak 80 euro balio du: solfeoa, trikitixa 3. mailatik aurrerakoentzat, panderoa eta txistua 2. mailatik aurrerakoentzat, alboka eta entsaio taldea. Azken hauek bi astez behin bilduko dira eta 30 euro balio du.

Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko 661 082 656 telefonora deitu behar da.

### ERREDAKZIOA

Bihar amaituko da Asteasun antolatu dituzten helduen ikastaroetan izena emateko epea. Haurrentzako ikastaroak ere, aldiz, amaitu da jada, nahiz eta eskaera batzuk ere jasoko dituzten oraindik.

Helduek, hortaz, laboreetako ikastaroa izango dute asteartean (100 euro); egur taila ostiralean (110 euro); oinarriko eskal dantzen ikastaroa ostiralean (75 euro); eta hauetaz gain aromaterapia, alboka, dantza tropikalak eta kantu zaharak berreskuratzeko saioak ere izango dituzte.

## Bizi-Nahi Elkartearen jaiak, gaurtik aurrera

**Ibarra** » Gaur 12:00etarako txupinazioarekin hasiko ditu Bizi-Nahi Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak bere jaiak.

tsaldeko zortziretan Bizi-Nahiko zuzendaritza batzordeak prestatutako eta zerbitzatutako afaria egingo dute Elkartearen aretoan. Afalondan, gainera, dantza saioa ere izango dute bertaratutakoek eskusoinuaren laguntzarekin.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Bizi-Nahi Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak gaur hasiko ditu bere jaiak. 12:00etan izango da hori, jaiei ongi etorria emateko egingo duten ikurrinaren altxatzea eta txupinazioarekin. Arratsaldeko lauetan, gainera, Mus, Tute, Escoba eta Puntu txapelketa izango dute eta zortziretan luntza banatuko dute Elkarteak kideen artean.

Bihar, aldiz, 09:30ean animatzen diren bazkide guztiek ibilaldia egingo dute eta ondoren hamaitaketa banatuko dute. Arra-

### Haur jaialdia, toka...

Larunbatean goizeko 11:30ean bikote mistoen txapelketa antolatu dute eta ondoren Ibarrako pipar eta tomate dastatzea izango da. 18:00etan haur jaialdia ere izango da; txokolatada eta jokoak antolatu dituzte.

Igandean goizeko zortziretan diana egingo dute herriko trikitilariekin, 11:00etan meza izango da herriko elizan hildako bazkideen omenez, 14:00etan Belabieta kiroldegian bazkaria izango dute eta 19:30ean, txupinazioarekin, amaituko dira jaiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



«Salbuespen egoera» salatuz urriaren 4ean Bilbon egingo den manifestazioarekin bat egin du Etxeratak. A. IMAZ

## Elkarretaratzeetara deitu du Etxeratak hilabeteko azken ostiralean bi eskualdeetan

**Politika** » Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxeratak bat egin du Bilbon «salbuespen egoera» salatuz egingo duten manifestazioarekin.

### ASIER IMAZ

Bi eskualdeetako Euskal Errepresaliatu Politikoen Senitartekoek, Etxeratak, elkarretaratzeetara deitu du ohiko leku eta orduetan gaur eta bihar, hilabeteko azken ostirala izaki.

Elkarretaratzeetan, besteak beste, «Amnistiaren Aldeko Batzordeen eta Askatasunaren ilegalizazioak eta Nafarroako Parlamentuaren jarrera» salatuko dituzte. Horretaz gain, «azken egunetako atxilotuak ere gogoan izango dituzte», aipatu dute.

### Nafarroako Parlamentua

Etxeratak jakinarazi duenez, «Nafarroako Parlamentuak ez du larriki gaixorik aurkitzen diren preso politikoen berri jakin nahi; ez ditu hauen senideak entzun ere egin nahi. PSN, UPN eta CDN alderdiez gain, oraingo honetan Nafarroako Ezker Batuaren ezinbesteko laguntzarekin, euskal preso politikoei bizi duten egoera ezkatuta nahian dabilta».

Alderdi hauei euren senide presoek «bizi duten egoera etengabe ezkatutzea» eta gezurretan ibiltzea leporatu die Etxeratak; «ge-

zurretan ari dira giza eskubideak errespetatzen dituztela esaten dutenean. Izan ere, beraien jarrerak dira gure senideen aurkako espetxe politikak kriminala ahalbidetzen dutenak. Beraien jarrerak, gaixorik aurkitzen diren gure senideak hiltzera eramatea dute helburu».

### AAMren ilegalizazioak

Iragan asteko Amnistiaren Aldeko Mugimenduen ilegalizazioen inguruan «amnistiaren aldeko konpromisoa kriminalizatzeko beste pauso bat» eman dela aipatu du Etxeratak. Senideen esanetan, «preso politikoen eskubideen aldeko aldarrikapenak kaletik desagerrarazi nahi dituzte. Beraien aurka darabilten espetxe politika krudelaren ondorioak ezkatutze-ko».

Hala eta guztiz ere, «kriminalizazio saio berri honek» ez dituztela harritu aipatu dute Etxerateko kideek; «zoritxarrez ezin dugu Auzitegi Nazionalak eman dabilen epaiekin aurrean ezere onik espero. Gure senideak torturatuak direnean, gure senideak gezurretan dabiltzala esaten duten epaile horiengandik ez dugu ezer onik espero. Larriki gaixorik dauden senideak, edota ezarritako kondenak beteta dituztenak espetxean bahiturik mantentzen dituzten epaile horiengandik; ez dugu ezer onik espero».

AAMetan «lan egin eta lanean

jarraitzen duten» gizon-emakumeentzat esker hitzak izan dituzte Etxeratek: «herriz herri gure senideen eskubideen alde zabiltzaten gure esker beroenak. Zuei esker egin diogu aurre hainbeste urteetako sufrimenduz guzti honi. Eta eskerrak emateaz gain, herrietan zabiltzaten gizon-emakumei gure senideen eskubideen defentsan jarraitzeko eskatzen dizuegu. Behar zaituztegu».

### Manifestazioa heldu den urriaren 4ean

Azkenik, urriaren 4ean Bilbon 17:30ean egingo den manifestazioarekin Etxeratak bat egingen duela aipatu du eta herritarrei bertara agertzeko eskatu diete.

### » ELKARRETARATZEAK

#### Gaur, irailak 25

■ **Leaburu-Txarama.** 20:00etan.

#### Bihar, irailak 26

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leiza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.



## Orioko ikasleak Plazaolatik barna

**LEITZA** ● Orioko herri ikastolako ikasleak, DBH 4. mailakoak, Leitzako plazan geratu ziren atzo atsedean hartu eta bazkaltzeko asmoz. 30 lagun inguruko tropela Lekunberritik zetorren, Plazaolako trenbideari jarraituz. Leitzan bazkaldu ostean Andoainera joan ziren bizikleta gainean, bertatik Oriora itzultzeko. Leitzako plazan, gazteak ikastetxean baino gustura-ge zeudela zirudien, nahiz eta irakasleak hurbil izan. ASIER IMAZ

## Laburrak

### Gaur eta etzi Gudari Eguna ospatuko dute

**LEITZA** ● Etzi, larunbatean, Gudari Eguna 2008 ospatuko dute Leitzan. Hala eta guztiz ere, ekitaldi-ekin gaur arratsaldean hasiko dira, izan ere, Aurreran bideo emanaldia egingo dute 20:00etan. Bertan, *Haizea eta sustraiak* izeneko bideoa ikusteko aukera egongo da. Etzi berriz, 20:00etan, herriko plaza-lik irtenda manifestazioa egingo dute.

### Kontsumitzaileen informaziorako bulegoa

**LEITZA** ● Kontsumitzaileen informaziorako Udal Bulegoak atek zabalduko ditu urritik aurrera. Hori bai, egun zehaztuta. Bulegoak jendearen kezka erantzuteko egunak honako hauek izango dira: urriaren 1 eta 15a, azaroaren 5a eta 19 eta abenduaren 17a izango dira. Orduetegiari dagokionez, udal bulegoa 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik udaltxean. Leitzako biztanleentzat zerbitzu hau dohainik izango da eta hitzordua eskatzeko 012 telefono zenbakira deitu beharko da.

**@ Inkestak.** Sartu gure web orrian dagoen atal honetan eta eman zure erantzuna bertan agertzen diren galderari. Besteak beste honako galdera aurkituko duzu: *TAO aparkatzeko sistemak Tolosan urte batzuk badaramatza. Sistema honen helburua kontuan izanik (jendeak kotxea gutxiago hartzea, beste arteen) somatu al duzu eragina? Zure erantzuna emateaz gain, jendearen erantzunak eta hausnarketak irakurtzeko aukera izango duzu, baita zure iritzia emateko ere. Horretaz gain, inkestarako edo eztabaidarako gai berriak proposatzeko aukera eskaintzen dizu gure web orriak, horretarako ondorengo helbide elektronikoan aurkituko duzu nora bidali proposamena:*

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

### Kirol ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

**LEITZA** ● Kirol ikastaroetan izena emateko aukera urriaren 1ean amaituko da. Ikastaroetan parte hartu nahi duenak Amazabal kiroldegira joan beharko du. Aurtengo ikasturterako 14 kirol ezberdinen inguruko ikastaroak antolatu dituzte. Horien artean, Aerobic-a, Pilates, Yoga, Haurren Gimnastika, Batuka Dance, Haurren Karatea eta Pilota aurkitzen dira.

### ETAk 2002an hil zuten Juan Carlos Beiro-ri omenaldia

**LEITZA** ● Nafarroa eta Gipuzkoako mugan omenaldia egin zioten atzo Juan Carlos Beiro guardia zibilar. Besteak beste, Silvestre Zubitur, Leitzan UPNren zinegotzia, eta Pello Urkiola, zinegotzi ohia, hurbildu ziren, azken honek bertsoz omenatu zuten Beiro. 2002. urtean hil zuten ET Ak Beiro asturiarra. Ustez, Nafarroako eta Gipuzkoako mugan, Guardia Zibila ET Aren aldeko pankarta bat ikusi zuen. Hau kentzera joan zirenean, atzean zeraman bonba lehertu egin zen.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

- **Furgoneta.** Peugeot Partner die-sela. Egoera onean. 649 51 09 41.
- **Sukaldea.** Bitrozeramikako sukaldea, labe eta guzti. 250 euro. Deitu: 600 89 02 10era.

### LANA

- **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera behar dugu. Iganetan jai izango luke. Deitu: 650 04 3139ra.

### BESTELAKOAK

- **Txakurkumea.** Border Collie arrazako amaren kumea oparitzen dut. 658 70 59 12 (Xabo).





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Ibarra.** Bizi nahi jubilatutako elkartearen festa hasiera 12:00etan, ikurrina altxa eta txupinazioa botatz, 16:00etan mus, tute, eskoba eta punttu txapelketaren hasiera eta 20:00etan lunch-a bazkideentzat.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Urriaren 19an egingo den II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke. Beharrezkoa da, egunean bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko.

■ **Tolosaldea.** Bizikleta errebisioa doan izango da Anoeta, Irura, Aduna, Asteasu, Zizurkil eta Villabonan, haur eta gaztetxoei pintxoak konpontzen eta bizikletan behar bezala jartzen erakusteko.

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoaren 10. urteurrenako ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarrerak salgai daude Kutzaren webgunean eta zinemako leihatilan.

■ **Tolosa.** Tolosako Caritas-ek mantak eta lo zakuak behar ditu. Bere egoitzan, parroki etxearen ondoan, entregatu daitezke.

■ **Amezketeta.** 1944an jaiotako amezketarrek kinto bazkaria ospatuko dute irailaren 27an. Bazkaria Behartzana jatetxean 14:00etan. Izena emateko, 943 653831 telefono zenbakira deitu.

### Kultur asteak

■ **Bidegoian.** Janari makrobiotikoa ariko dira gela balioiztadunak 19:00etan, Kultur Astearen barruan. Halaber, Patata-tortilla lehiaketa Bidaniko frontoian 19:00etan (izena asteazkena baino lehen eman behar da udaletxean) eta *Ogirik gabe etorri zen semea* antzerkia 21:00etan balioiztatzeko gelan.

### Zinema

■ **Tolosa.** Yo filma (JBA) emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri iritzien erantzunik.



## Kilometroak, etxeko balkoietan present

**IRURA** • Gaur aurkeztuko dute ofizialki Kilometroetako jaialdiaren egitaraua, jibilbidea, guneen kokapena, ... Azken ukituak ematen ari dira, beraz, antolatzaileak guztia. Herriarrek, haatik, astebeite eskas geratzen denean, motorrak berotzen hasi dira dagoeneko eta jaialdia present dago

kaleetan. Pasa den asteburuan San Migel jaiaren hasierarekin batera, aurtengo Kilometroren kartelak ikusten hasi ziren herriko balkoietan. Herria benetako bultzada eman nahi dio aurtengoan. Orain, guztia ondo ateratzea besterik ez da geratzen. I.G./I.T.

## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak** agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa